



## Santamaña jaiak agurtuko dituzte gaur, eskualdeko bi herrietan

**ASTEASU** ▶ Asteartean ekin zieten jaiak; gaur bazkaria, herri kirolak, bertsolariak eta trikitixa

**ALBIZTUR** ▶ Santa Marina auzoan ospatzen dute gaur, ekitaldiz beteriko festa eguna ▶ 5



Gazteboentzako jolasak izan ziren atzo arratsaldean Asteasun. ASIER IMAZ



N. GARZIA

## Atekabeltz jai giroan, bigarren urteurrenean

**LEITZA** ▶ Herenegun eta atzo antolatu zituzten ospakizuneko ekitaldiak; atzoko bazkarian, 70 lagun inguru elkartu ziren ▶ 4

**AMEZKETA** ▶

Gazteak nahiz nagusiak, trebe pilotan

XIX. Josean Tolosa Txapelketan ▶ 5



## II. GARAÇARDO AZOKA Uztailaren 19tik 22ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA

## UZTURRETIK ▶ JOXI IMAZ

## Sariak eta politika



**P**roduktu sano-ekologikoak saltzen dituen Tolosako denda bati Gipuzkoa mailako sari bat eman diote. Urte osoan atea zabal-zabalik edukitzen du dendak, eta barruan temperatura atsegina mantentzeko, haize girotu txorrea tope jarrita egoten da. Bere liburuzain lanean daukan jarrerarekin irakurzaletasuna batera sustatzen

ez duen eskualdeko idazle bati literatur sari garrantzitsu bat eman diote. Bi kasutan, lehendik ere izen *handia* eta *ona* duten familiak eta abizenak saritu eta famatu dira. Bidezkoa iruditzen al zaizue? Dirudenez, gizarteak erakutsi nahi digu saritu horiek direla eredugarri, baina ez ote da eredugarriago egunero bere lana ongi egiten saiatzen den herritar xume eta anonimoa?

*Abanguardia* eta *alternatibo* kontzeptuetara garamatza aurreko hausnarkeak. *Abanguardia* zerbait ezberdina eta berritzailea egiten saiatzea litzateke, baina era berean fama eta dirua bila-

tuaz. Baina agian zailagoa da benetan *alternatibo* izatea, hau da, fama eta dirua ez bilatzea. Baditugu nire ustez Tolosaldean *alternatibismo* horren adierazpen interesgarriak: Bonberenea, Asvinenea, Eneko Aritzaren Lagunak... Aisialdi pasibo-kontsumista bat beharrean, sormena eta aisialdi aktibo eta ez-kontsumista lantzen ari diren esperientziak. Kultura elitista kontsumitzera mugatu beharrean, herri kultura egiten ari diren esperientziak (herriak landutako kultura herriarentzako).

Eta *herri* kontzeptua aipatzen hasita, hitz egin genezake baita ere, hurrengo

urteetan gure herrietan nork aginduko duen erabaki duten hauteskondeei buruz. Aurreko hilabeteetan, hor ibili ziren Estatu mailako egunkari indartsuenak gure bailarako herri txikien izenak errepikatzen, Tolosaldea *feudo radical* definituaz. Madrilen edo Espainiako beste edozein tokitan izen horiek irakurtzen zituenak pentsatuko zuen ziurrenik, propaganda ofizialaren ondorioz guk ere *taliban*, *Irak*, *Gaza* eta abar bezalako izenak irakurtzean pentsatzen duguna: arriskua, gerra... Ez dakit haiei, baina guri, Lizartza, Irura eta Elduainen gertutako muturreko adibideak, eta baita Euskal Selekzioen kontrako erasoak ere balio izan digute ikusteko zein bidegabea edo injustua den Espainiako Estatuaren demokrazia. Sariak bezala.

## LEHEN ETA ORAIN ▶



## Berastegiren eraldaketa mendeek aurrera egin ahala

**Erredakzioa** ▶ Duen kokapenarengatik, ikuspegiengatik eta beste hainbat ezaugarriengatik eskualdeko herririk ederrenetarikotzat dute askok Berastegi. Bada, ohikoa den bezala, urteek aurrera egin duten neurrian pixkanaka-pixkanaka aldatuz joan da herria, baina bere xarma mantendu du. Goiko argazkietan aldaketak horiek argi ikus ditzakegu. Goian eta ezkerrean ageri dena, 1920. urtekoa da gutxi go-

rabehera; Bresanini da argazkiaren egilea eta Pastantxo aldetik aterata dago. Leku beretik ateratzen zuten Juan Inazio Elosegik duela 3 urte. 80 urte baino gehiagoko aldeaz beraz bi argazkien artean. Goian, eskuinean, berriz, Zuikin aldetik Indalecio Ojanguerenek ateratzen zuten argazkia ikus dezakegu. 1930 urte inguruan herriak zuen itxura ikus daiteke. GEOGRAFIA GENERAL DEL PAIS VASCO NAVARRO / GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA / JUAN INAZIO ELOSEGI

AITOR ELDUAIEN ▶ EUSKADI IRRATIKO 'BIDALDI' SAIOKO ESATARIA

# «Mikel Esseryri egin genion elkarrizketa berriro entzutea hunkigarria izan da»

Bidaien inguruko 'Bidaldi' programak atsedena du uztailan, baina abuztuan egunero emango dute; bien bitartean, Frantziako Tourreko esatari lanetan dabil

URTZI URKIZU (Berria)

Egunotan Frantziako Tourrean buru-belarri dabil Aitor El-duaien (Tolosa, 1975), Txomin Perurena, Jose Mari Apaolaza eta Xabier Usabiagarekin batera.

## Noiztik aurkezten duzu Bidaldi?

Sei urte inguru dira irratsaioa egiten hasi nintzenetik. Tartean beste lan batzuetan ibili nintzen, eta bolada batean Mikel Apaolazak aurkeztu zuen programa. Sortu zenean, astean behingo saioa zen, ordubetekoa. Baina bidaietarako Euskal Herrian joera handia zegoela ikusita, maiztasuna handitu zen. Denboraldi honetan, asteartean, asteazketan eta ostegunetan egin dugu, 22:00etatik 23:00etara. Abuztuan, berriro, asteleheneetik ostiralera izango da saioa, 18:00etatik 19:00etara.

## Zertan saiatzen zara programan eta zein da zure helburua?

Helburua ez da inoren protagonismoa bilatzea, baizik eta bidaiak zer izan daitezkeen eta horrekin batera gomendioak bilatzea. Asmoa da bidaiaren entzuleentzako eredu izatea. Artista bat halako lekutara joan bada, artista hori zer fenomeno den azpimarratzea baino gehiago, leku hori zein zoragarria den. Gonbidatuak transmitore izatea nahi dugu.



HITZA

## Bidaia irratsaio bat entzuleentzako atsegin bilakatzeko zer egin behar da?

Kontatzaileari libre utzi behar zaio. Giro goxo batean berarekin jarri bazkari batean bageunde bezala, eta lagun artean sortzen diren galderak egin. Gonbidatuak normalean beti izaten du zer kontatua, eta modu askean ari bada, saio arin eta freskoa lortzen da.

## Radio Euskadin eta beste irratietan badira bidaia saioak ere. Zuk entzuten al dituzue horiek?

Bai. Roge Blasco Radio Euskadin eta Jesus Torquemada Herri Irratian oso erreferentzia onak dira. Ahal dela entzuten ditut. Biek in harremana dut, gainera. Zein bidaiarik hunkitu zaitu gehien?

## SAIOAREN HELBURUA

«Asmoa ez da inoren protagonismoa bilatzea, bidaia entzuleentzako eredu izatea baizik»

## BIDAIATZEA

«Asko gustatzen zait; gehienetan bizikletarekin eta motxilarekin ibili izan naiz»

## DOPINA

«Kalte guztia txirrindularientzat da eta pena da haiek kolektibo bezala batasunik ez lortzea»

Zail da bat esatea. Orain, Yemengo atentatua gertatu eta gero, oso berezia egin zait Mikel Esseryren elkarrizketa entzutea; duela urtebete gonbidatu genuen saiora. Haren bizi eta bidaia filosofiaz hitz egin genuen. Pertsona eredugarria zen.

**Zuri ere bidaiatzea gustatzen al zaizu?**  
Bai, gehienetan bizikletarekin eta motxilarekin ibili naiz. Egin

ditudan bidaien artean honako hauek daude: Zilarraren Bidea, Done Jakue bidea, Andaluzia, Eskandinavia, Hego Amerika —hiru hilabetez— eta Senegal.

## Hitz egin dezagun Frantziako Tourraz. Lau urte dira esatari zablitzala, eskarmentua duten lagunekin. Nola definituko zenituzke ondoko lagunak?

Gozamina da haiekin lan egitea. Txomin Perurena txirrindularitza dena izan da, eta esaten duen edozer aintzat hartzekoa da. Xabier Usabiagak sekulako dokumentazioa du, eta komunikatzaile bikaina da. Jose Mari Apaolaza astegunetan aritzen da eta Txetxu Urbietan asteburuetan aritzen da esatari jantziak dira.

## Zer eman dezake irratiak txirrindularitza emateko orduan, telebistak ematen ez duenik?

Ez gaude baldintza onenean, ez gaudelako han bertan. Baina Perurena eta Usabiagaren jakintzaren ekarpena dugu batetik, eta kontakizunean telebista irudirik ez duen entzulea irudikatu behar dugu.

## Dopin aferen gainean zer iritzi duzu?

Kalte guztia txirrindularientzat da eta pena da haiek kolektibo bezala batasunik ez lortzea. Bestetik, gaia gehiegi matxakatu da eta komunikabideok badugu gure errua.

## Euskal txirrindulariak nola ikusten dituzue aurtengo Tourrean?

Orain arte lan zoragarria egin dute eta Pirinioak falta zaizkigu.

berria bekak  
2007

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.000 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik iraileira
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.000 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2007-09-07

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Atekabeltz jai giroan murgildurik

## Gaztetxearen bigarren urteurrena ospatu dute asteburuan zehar

NAIARA GARZIA

Atzo Atekabeltz Gaztetxearen ospakizun egun handia izan zen, bigarren urteurrenaren ospakizunak ostiralean hasi ziren arren, atzo egin baitzituzten ekitaldi nagusiak.

Goizetik bi artista Gaztetxearen horma batean graffiti bat egiten aritu ziren. Eguerdi partean bizikleta martxa egin zuten herriaren inguruan, eta 14:00ak aldera bigarren urteurrena ospatzeko bazkaria egin zuten. Antolatzaileek azaldu dutenez, 70 pertsona elkartu ziren.

Alaitasuna eta musika oinarritzakoak izan ziren jai egun honetan. Honela, bazkalondoa bi

klownek alaitu zuten. Musika, berriz, iluntze partean hasi zen SDF talde katalanarekin. Hip hop emanaldi hau eta gero, triki poteoa egin zuten 20:30ean herriaren barrera, eta bigarren urteurren ospakizunekin amaitzeko, Iruñeko THC taldeak kontzertua eskaini zuen 23:00etan. Kontzertua amaitu zen arren, festak goizeko 06:00ak arte jarraitu zuten.

Gauetz Atekabeltz Gaztetxeko tabernan lanean herriko koadrilak aritu zirela azaldu dute antolatzaileek. «Beti Gaztetxean ibiltzen garenek gauean atsedean hartzea erabaki dugu eta horretarako herriko koadrila ezberdinak ariko dira tabernan lanean».



**Bazkaria.** Antolatzaileek azaldu dutenez, 70 lagun inguru elkartu ziren atzo bazkaltzera, lehengo urteko kopuru bera mantendu da, beraz. Bazkaria Gaztetxekoek prestatu zuten. N. G.



**Grffiti.** Horma batean graffiti bat egin zuten. N. G.



**Klownak.** Bi klownek bazkalondoa alaitu zuten. N. G.

AZOKA ▶

## Euria eta lanbroa, azokarako aproposak

### Mahaietan garai honetako ohiko produktuak ikusi ahal izan ziren

PABLO ALBERDI

Atzoko azokaren inguruko kronika soilik elementu meteorologikoei buruzkoa izan daiteke, izan ere azokara bertaratutako eguraldia izan zuten hizpide. Denek udara honen anormaltasuna izan zuten hizpide, euriaz gain, urteko egunik beroenak izan ohi diren hauetan arropa jastera behartzen gaituen udara hau, alegia.

Eguraldi txarra eginagatik, merkatura erostun gehiago joan ohi da. Eguraldi txararen ondorioz herritar askok kanpora ez joatea erabakitzen du eta honen ondorioz, goizean goizetik erosketak egitera animatzen dira asko. Eguraldi honek ere badubeste ondorio onik, izan ere, atzoko xirimiri eta lanbroari esker, baserritarren uestez hain lehorrak dauden baratza eta belazeak bustiko dira.

Mahaietan garai honetako ohiko produktuak aurkitu ditzaiteke, besteak beste, letxua, leka zapalak eta frantsesak, patatak, porruak, zerbak, tomateak, kalabazinka, pipermiak, azenarioak, erremolatxak, eta beste hainbat espezie.

Orohar, prezioak mantendu egiten dira. Pipermina jaitsi egin da eskaintzaren igoeraren ondorioz eta tomateak, aldiz, eskasia dela eta gora egin du. Adituen uestez, hezetanaren ondorioz sortutako herdoilak tomateen eta pipermien ekoizpenean eragina izan du eta aurreko urtean baino baxuagoa izan da.

## ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza		
Begonia	1,20	-
Gerania	2,00	-

Bertako produktuak		
Marrubia	3,00	-
Kalabazina	0,50	-

Produktu ekologikoak		
Sagara	2,00	3,00
Arraultzak	3,50	-

LEITZA ▶ PILOTA

# Leitzak Euskal Herriko Herri Arteko finala jokatu du Berrizen aurka

## Ostiralean hiru partidetatik bi irabazi zituzten leitzarrek Amazabalen

N. GARZIA

Leitzak Euskal Herriko Herri Arteko finala jokatu du datorren larunbatean, Arrasaten, Berrizen aurka, herenegun Leitzako Amazabal Pilotalekuan Maezturi gailendu ondoren.



Olazabal eta Iriarte Jauregi eta Uribarrenen aurka lehiatu ziren. HITZA

Ostiral iluntzean begi-bistakoa zen Amazabal Pilotalekuan pilota partida garrantzitsuak jokatu behar zituztela, bertaratu zen jendetza ikustea besterik ez zegoen, izan ere, pilotalekua erabat bete zen. Jendearen berotasuna ere nabarmena izan zen, finalaurrekoan zehar hainbatetan ikusleen txaloak entzun baitziren.

Leitzak jokatuak 3 norgehiagoketatik 2 irabazi zituen, Maeztun joan den asteburuan

lortutako emaitza parekatuz. Lehenengo partidaren Aranburu eta Jaunarena Rituerto eta Mendinuetaren aurka aritu ziren. «Lehendabiziko partida nahiko borrokatua izandu zen. Jaunarena nahiko erraz hasi zen, baina gero 12-10 ere galitzen joan ziren. Azkenean Jaunarenak berriro agindu zuen, eta bere maila erakutsi zuen», dio Pakito Sagastibeltzak. Aurrera Pilota Eskolako ardurdunak. Oso tanto politak ikusi

ahal izan ziren eta ikusleek txaloekin eskertu zituzten. «Azkenean Jaunarenak eskuinez gantxo txaparen gainean utzi zuen eta izugarria izandu zen. Tanto hauek profesioletan ikusteko ere nahiko lanak izaten dira».

Bigarren partidaren Aldunze eta Goikoetxeak Albarado eta Berruetaren aurka galdu zuten, 12-22. «Lehenengo zaita nahiko borrokatua izandu zen, eta gero Maeztuko aurrelaria nabarmendu zen eta bigarren zatian berak agindu zuen».

Azken partida ere Olazabal eta Iriartek irabazi zuten, 22-12. «Iriarte eta Olazabal ikaragarri ongi aritu ziren. Iriarte ziurtasunez aritu zen, eta Olazabalek oso tanto politak egin zituen. Erraz irabazi zuten».

## FINALAURREKOA ▶

### EMAITZAK

**Kadeteak.** Aranburu eta Jaunarena 22, Rituerto eta Mendinuet 15.

**Gazteak.** Aldunze eta Goikoetxea 12, Albarado eta Berruet 22.

**Seniarrak.** Olazabal eta Iriarte 22, Jauregi eta Uribarren 12.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko, goizetan Ibarren. 943 67 15 09. **Zaintzailea.** Tolosan, etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko emakume euskalduna behar da, goizez. Irailen hasteko. Deitu: 677 45 25 97.

### GALDUTAKOAK

**Zakurrak.** Bi Setter galdu zaizkit Zizurkilgo mendietan. 629 49 41 27.

SANTAMAÑAK ▶

# Albiztur eta Asteasun jai eguna ospatuko dute goizetik hasita

Asteartean hasi ziren santamañak Asteasun, atzo haur jolasak, toka txapelketa eta trikitixa izan zituzten



Epaleia eta aurkezlea gertu zituztela lau taldetan ibili ziren haurrak lehia Asteasuko goiko bailaran. A.I.

ASIER IMAZ

Eskualdeko bi herritan ospatuko dituzte gaur santamañak, Asteasu eta Albizturren hain zuzen. Asteasuko goiko bailaran asteartean ekin zioten jaiak. Albizturren, berriz, gaurko egunerako antolatuta dute egitarau oparora.

Atzokoan Asteasun haurrentzako jolasak antolatuta zituzten arratsaldean txikiak gozamenarako. Ondoren, VII. Nazioarteko Toka Txapelketa burutu zuten eta eguna amaitzeko Epelde eta Lutxidio trikitilarien kantuak izan zituzten dantza eta parrandarako.

Gaur Albizturren, trikitilariak, herri kirolak eta bertsolariak izango dituzte besteak beste, Santa Marina auzoan ospatuko diren santamañetan. Eguna 12:30ean hasiko dute auzoko ermitan egingo den Meza Nagusiarekin.

EGITARAUAK ▶

Eskualdean santamañak bi herritan ospatzen dituzte: Albizturko Santa Marina auzoan eta Asteasun, goiko bailaran.

**ALBIZTUR GAUR**

**12:30.** Santa Marinako ermitan Meza Nagusia.

**Bazkaldu ondoren.** Arandia anaiak trikitilarien saioa. Segoretxe Berri Nekalzal turismoaren aurrealdean.

**18:00.** Herri kirolak.

▶ Harri-jasotzaileak: Albizturko gazteekin batera ariko dira Aimar Irigoien eta Mari Jose Sardon.

▶ Aizkolariak: Jon Rekondo eta Unai Otaño. Hauek erakustaldia egingo dute.

**Ondoren.** Anjel Mari Peñarikano eta Aitor

Mendiluze bertsolariak emanaldia.  
▶ Bukatzeko trikitixa saioa izango da.

**ASTEASU GAUR**

**09:30.** Andrazarrateko XXIII. igoera (federatu gabeko txirindularientzat).

**11:15.** Meza Nagusia.

Ondoren herri kirolak.  
▶ Aizkolariak: Agite eta Xabier Alkizalete, Olasagasti eta Jokin Alkizalete.

▶ Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Lertxundi.

▶ Bertsolariak: Irazu eta Telleria.

▶ Trikitilariak: Laja, Ziolar eta Eguren.

**17:30.** VII. Zaldi Lasterketa. **Gauean.** Laja, Ziolar eta Eguren trikitilariak.

AMEZKETA ▶ PILOTA

## Nagusiak eta gazteak buruz-buru, Larrunarrin

Herenegun eta atzo egun guztian zehar izan zen pilota partidak ikusteko aukera



Gazteen mailan 3 partida jokatu zituzten atzo goizean. A. IMAZ

A. IMAZ

Larrunari frontoian buruzburuko XIX. Josean Tolosa Txapelketa jokatzeko ari dira. Atzo eta herenegun maila guztietako partidak ikusteko aukera izan zen bertan. Lehiak 18 tantora jokatzeko dira.

Herenegun, nagusien mailako 3 partida jokatu zituzten, Galarraga, Soto eta Gorrotxategi izan zirelarik garaille, Agirre, Esnaola eta Zelaiaren aurka. Atzo berriz egun osoan jokatu zituzten partidak, bai gazteen mailan, baita kadeteetan eta nagusietan ere. Goiztean gazteen 3 partida jokatu

zituzten, eta hauetan, Sagaseta, Etxeberria eta Iriartek, Arratibel, Urruzola eta Oiarzabal garaitu zituzten.

**EMAITZAK ▶**

**NAGUSIEN MAILA**

**Herenegun.**

Agirre	8 - 18 Galarraga
Esnaola	15 - 18 Soto
Gorrotxategi	18 - 14 Zelaia

**GAZTEEN MAILA**

**Atzo.**

Arratibel	5 - 18 Sagaseta
Etxeberria	18 - 6 Urruzola
Iriarte	18 - 11 Oiarzabal

## EUSKAL JAIA

### Billabona

Uztailak

# 28

Larunbata

Billabonako Plazan

"SALTO ETA JAUZI, EUSKARAZ BIZI!"

**18:00etan** Sagardo dastaketa pintxoan laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak alaiturik

**19:30etan** BERTSOLARIAK: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso

**20:00etan** ERROMERIA: Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak

**21:00etan** Afari herrikoia plazan: **Zikiro Jana**

**00'00etan** ERROMERIA: Patxi eta Konpania

**Garaiko euskal jantziekin parte hartzeraz animatzen zaituztegu**

**Zikiro janerako txartelak salgai: 20€**

UNAI ONSALO ▶ PILOTARIA

# «Eskuina izan arren, pilotan jokatzeko ezkerria nahiago dut»

Unai Onsalok Aurrera-Saiazeko pilotari izaten jarraitzen du eta Asegarcerekin ere entrenamenduak egiten ditu

NAIARA GARZIA

Unai Onsalok (Areso, 1985) txikia zenetik ibili da pilotan, eta pilota eskola ezberdinak eza-gutu ondoren, gaur egun Asegarcerekin entrenatzen du.

**Pilotari bezala zure ibilbidea Areson hasi zen.**

Bai, umetatik hasi ginen gu Areson. Gero Berastegin 6 urte bizitzen pasa nituen, 13 urtetik 19 bitarte, eta orduan ibili nintzen jokatzeko bai Berastegin eta bai Tolosan ere. Gero Aresora etorri nintzenean berriz Leitzan ibili nintzen eta ondoren berritoki Tolosan.

**Aresoko pilota eskolan ere ibilia zara, beraz?**

Bai, Olazabal eta gu guztiok han ibiliak gara.

**Berastegitik Tolosara zergatik pasatu zinen?**

Adinarengatik. Berastegin adin bateraino jokatzeko dute, eta Leitzan ibili nintzenean ere, Olazabal Asperekin hasi zen, Ibai Bengoetxea ere Frontise-

kin joan zen, eta orduan nire mailakoak bi pilotari soilik gelditzen ginen, ni eta Betelu. Orain gehiago elkartzeko dira, baina orduan ez, eta Tolosara joan nintzen. Olazabal batzutan etortzen zen baina normalean Asperekin entrenatzen zuten, Bengoetxeak ere Gasteizen ikasten zuten eta Iriarte mentu horretan Iruñean zegoela uste dut.

**Eskola batetik bestera ezberdintasun handia nabaritu al duzu?**

Entrenatzeko garaian, behar bada. Banaka entrenatzenekin bina entrenatzena. Normalean urte guztian binaka ibiltzen gara, bi edo hiru txapelketa kenduta, eta horrela entrenatzen bazara, hobeki.

**Eskuetatik sufritzen al duzu?**

Bai. Gainera urtebetean behatz bera bi aldiz hautsi dut, eta geldirik egon naiz denbora dezentte, baina bestela lesiorik ez dut izan. Orain, azkenaldian, nahiko bolada ona izan dut, ez dut eskuetatik sufritu, baina partida asko jokatzeko ari naizenez, lehengoan ezkerria izurratu zitzaidan eta beste batean, eskuina.

**Udan zer erritmo daramazu?**

Orain herrietako festetan gabiltza, eta gero bi txapelketa jokatzeko ari gara: Erreterikoa eta Antiguokoa.

**Udan festetan aritzen zarete, gehienbat. Gustura aritzen al zara?**


Festetakoa lasaia izaten da, partidak askotan hitz eginda jokatzeko dituzu. Baina alde txar bat ere badauka, partida asko pilatzen baitira, orain ere 9 egunetan 6 partida jokatu ditut eta gehiegi da.

**Atsedendia nolaz hartuko duzu?**

Entrenatzailearekin hitz egin nuen eta iraila aldean egun batzuk hartuko ditut, hurrengo denboraldia hasi aurretik.

**Asegarcerekin ia 2 urte darabatzazu entrenatzen.**

Nik Asegarcerekin baldintza



N. GARZIA

berdintasunean kontratu sinatuta daukat. Honen arabera, Aspe eskaintza batekin etortzen baldin bazait eta Asegarcerekin eskaintza hori berdintzen baldin badu, Asegarcerekin gelditu beharko nintzateke. Hori duela ia bi urte sinatu nuen. Ordainetan entrenamenduak ematen dizkirate.

**Nola egin zizuten proposamena?**

Asegarcerekin eta Aurrera-Saiazeko entrenatzaile bera dago, Anizeto Lazkano, eta debuta egin berri duen Olaetxeari eta niri horixe eskaini ziguten, entrenamenduak emango zizkigula baldintza berdintasunean.

**Entrenamenduetan ezberdintasun handia al dago?**

Profesionalen pilotak ibiltzen genituen eta profesionalekin ibiltzen ginen. Beti han izaten ziren Saralegi, Unanue, Asier Olaizola... Beti horiekin ibilita beste maila bat da eta beste abiadura bat. Erritmoa ezberdina izaten da.

**Orain Aurrera-Saiazekin entrenatzen al duzu?**

Klubarekin oso gutxitan entrenatzen dut, normalean Asegarcerekin prestatzen naiz, goizetan, baina lekurik ez badute pilotari profesional nahikoak bildu direlako, ba orduan arratsaldean klubera entrenatzea joaten naiz. Partidarik ez dargukunean astearte eta ostegunetan entrenatzen dugu, baina normalean astean behin entre-

natu eta harekin gelditzen gara.

**Frontoleko lanaz gain, nola prestatzen zara?**

Lehen korrika pixka bat egiten genuen, baina orain hainbeste partida dauzkagunez ez dugu ezer gehiago egiten. Entrenatzaile fisiko batekin hasteko asmoa badut, denak normalean hor dabilta gimnasioa dela eta ni berriz deus egin gabe...

**Mendira joaten zara?**

Bai, oso gustukoa dut. Mendia nire dudala esango nuke. Zakurrak dauzkate eta gainera ehiza gustatzen zait. Areso eta Berastegiko mendietan ibiltzen naiz.

**Pilotari bezala, zein dira zure dohainak?**

Ezkerria, golpea freskoa eta goiko jarrera. Pilota atzera botatzeko ez naiz oso pilotari luzea, baina goiko jarreretan nahiko golpe bizia daukat. Eskuina izan arren, pilotan jokatzeko ezkerria nahiago dut, batak bat, pilota mugitzeko eta tantoa bukatzeko.

**Aurtego denboraldia nolako izandu da?**

Niretzako hobereana. Elgetan lau t'erdikoan txapeldunorde, Sopolan lau t'erdikoan txapeldun. Honetan Eguskizak galdu egin zuen eta profesionaletatik jaitzi zen. Bergarako binakako txapeldunorde, eta Matienan ere txapeldunorde. Lau finaletatik bakarira irabazi arren, joko aldetik eta oso gustura gelditu naiz.

**Amateur mailan txapelketarik garrantzitsuena Elgetakoa da. Finala nolako izandu zen?**

12 eta 4 galtzen hasi nintzen eta azkenean 22 eta 20 galdu nuen. Alde batetik pena hartu nuen, baina bestetik buelta eman niolako ere pozik gelditu nintzen.

**Partidetan urduril jartzen al zara?**

Normalean nahiko urduria naiz, baina gero izerditutakoan lasaitzen naiz, eta partida amaitu arte behintzat ez dut normalean etsitzen.

**Partida batean galtzen zozazenean, zerbaitetan pentsatzen al duzu?**

Bai, pentsatzen dut. Nahiz eta ez irabazi, tanteo ona egin behar dudala, horretan pentsatzen dut.

**Pilotari batek ona izateko zer izan behar du?**

Aurrelari batek gantxoia tanteo bukatzeko. Gero defentsa, jo ere egin behar du eta denak egin behar ditu, baina gehienbat gantxoia. Atzelari batek jo ere egin behar du.

**Hurrengo denboraldia begira, zein da zure helburua?**

Nire helburua aurtengoa behintzat berdintzea eta orain daukaten mailari eustea da.

**Zu zer frontoletan aritzen zara gustura?**

Bergarako frontoia ikaragarri gustatzen zait, gehiena, baina Tolosako Beotibar bera ere frontoi ona da.

## ENTRENAMENDUAK

«Klubarekin oso gutxitan entrenatzen dut, normalean Asegarcerekin prestatzen naiz»

## HELBURUA

«Nire helburua aurtengoa behintzat berdintzea eta orain daukaten mailari eustea da»

## FRONTOIAK

«Bergarako frontoia ikaragarri gustatzen zait, gehiena, baina Tolosako Beotibar bera ere frontoi ona da»

ASTEASU ▶ KULTURA

AINARA GOROSTITZU (Berria)

# Abertzale eta ez abertzaleen «etsai»

Independentismoaren eta estatalismoaren bideak baztertu eta egitura zentralista izango duen Euskal Hiria aldarrikatu du

**E**kitea erabaki zuen Bernardo Atxagak (Asteasu, 1951). Duela 15 bat urte. «Amorrazioz. Ergeltasunean bizitzea ez delako atsegina». Ekitea. Euskal Hiria deitu dion enteari buruz pentsatzen hasi zen orduan. Grezia klasikora jo zuen probintzianismoan eroria ikusten zuen Euskal Herri «fantasmagorikoaren» etorkizunaz hausnartzeko. Eta hiriarren, —polisaren— tradizio politikoa aldarrikatzeari ekin zion. Eta plano metafisiko eta utopikoan Euskal Hiria aldarrikatzeari. «Abertzaleen eta ez abertzaleen etsai bihurtuz».

Euskal Hiriari buruzko bere «azken gogoetak» UEUko Historia sailak antolatutako Euskal hiriaren historian zehar ikastaroan plazaratu zituen idazleak pasa den astean. «Gaur lurra-aren gainean ibili behar dugu», aurreratu du, «airean dagoen horri buruz. Euskal Hiria utopiaren-gogoetan munduan dago».

Oteiza eta estatalismoa

Hausnarketen abiapuntu, bere nerabazarora jo du idazleak. 14-15 urterekin, Asteasutik Donostiara ikastera joan zeneko garaia: «Orduan ezagutzen ez nuen zirkulu batean kokatua aurkitu nuen neure burua. Z-k bortitz esaten genituen euskaldunak nekazariaren estereotiporen zirkuluan sartzen gintuzten. Besteen begirada poetikoren arabera, zirkulu txar batean kokatuak geunden». Idazlearen arabera, begirada poetikoa positiboa edo negatiboa izan liteke, eta lehen kasu hartan, negatiboa izan zen.

Gerora, baina, nekazariaren estereotipoa beraie, beste zirkulu batek balio handia eman zien. «Bazegoen gizartean beste begirada poetiko bat gure zirkulu arrunta hartu eta goiko balioa ematen ari zitzaiona». Euskalduna nekazariarekin identifikatzeko saioa jada Orixe egin zuen, baina Atxagaren arabera, «Euskal Herriarekin loturiko begirada poetiko sen-



Bernardo Atxaga Markak. Gernika 1937 liburuaren aurkezpenean. DANEL LAUZIRIKA/BUSTURIALDEKO HITZA

doena asmatu duen artista-sortzailea Oteiza izan da. Joan den mendean eragin gehien izan duen ideia Oteizaren vascoarena da».

Nekazariaren estereotipoarekin bat egin eta euskalduna beheko zirkulura jaitsi nahi izan dute batzuek eta identifikazio berarekin goiko zirkulura igo nahi izan dute besteek, Atxagaren arabera. «Abertzale-letasunaren aurka mintzatzen dena sarri ez da ari kosmopolitismoaren ikuspegitik, klasizismoaren ikuspegitik baizik, eta euskalduna balio gutxien zirkulu horretara eramaten du». Euskalduna goiko zirkulura igo nahi dutenek, berriz, Oteizaren teoria onartzen dute: «Oteizaren teorian apoiatzen dira euskaldunak goiko zirkulura igo

nahi dituztenak teoria politikoso bat eraikitzeko». Atxagak ez du bat egiten Oteizaren teoriarekin, «historiari balio gutzia kentzen dio, eta euskalduntasunaren esentzia jartzen politikaren erdian. Oteizari buruz oso iritzi ona dut artista bezala, baina oso txarra ideologo bezala».

Idazlearen arabera, «Oteizismoak» indarra hartu zuen frankismoan, «egoera deseperante hartan ez zegoelako beste heldulekurik».

Ideologia mortuetatik ateraz

Euskalduna beheko mailara edo goikora eraman duten bi begirada poetikoak, «bi ideologia horiek» bukatuta daude Atxagarentzat: «Bi asteroide

horiek hilda daude, ez dute ezelako bizitasunik. Gaurko gizarteak ez du zerikurisik euskalduna baserriar eragelarekin lotzen duen begiradarekin, eta ezta euskalduna baserriar argitsu-santuarekin lotzen duenarekin ere». Idazlearen hitzetan, ideologia edo begirada poetiko horiek gizartean oinarririk ez dutenez, teatralizazioa gertatzen da: «Jendea burges handi bat bezala bizi da, baina diskurtso anarkista du».

Ekitea erabakita, ardatz aldaketa beharrezko ikusten du Atxagak. Euskal Herri-ko Euskal Hirirako ardatz aldaketa. Utopiaren eta hizkera alegorikoaren mundura itzuliz, hiriaren polis kontzeptua interesatzen zaio: «Polisa aniztasuna-

ren eta jende desberdinaren batuketa errespetutsua izan da, jende talde desberdinak batzeko eta bizitzeko gunea». Euskal Hiriaren utopia aldarrikatzen du, «gure ideologiako mortuetatik atera behar dugu».

Ardatz aldaketa horretan, estatalismoaren «bide bazter-tzailea» eta independentismoaren «bide tragikoa» bazter-tzen ditu hizlariak. «Estatalis-tek ez dakit nongo zentro bat onartu behar dela esaten dutenean, ez du zentzurik; gaur zentro asko izan daitezke. Independentziarena ere beste ideia mortu bat da; ez da beharrez-koa: Independentzia beharrez-ko ikusten zen subjektu eta kul-tura bat aurrera ateratzeko, gaur egun ez da beharrezko».

Probintzien egitura

Utopiaren aireko eremutik «Euskal Herri fisikora» jaitsiz, Euskal Herria erregio metro-politano bezala antolatua ikusten du egun Atxagak, eta beronen «deseconomia» kritikatzin: Euskal Herriaren egitura administratiboa XIX. mende-koa da; hiri batean gaude baina administrazioa probintziak-ka doa». Gaur egun duela 200 urteko egitura administratiboa edukitzeak kalteak ekartzen dituela dio hizlariak, «burokrazia maila ikaragarria baita».

Hiriaren egitura goresten du, bada, Atxagak. Baina hiri hori, «euskal» izango da, Euskal Hiria. «Historia aintzat hartu behar da. Subjektu bat jarri behar zaio hiriri, kultura bat». Kultura hori, baina, erakargarria izan beharko litzateke. Hiriak euskal kultura ezaugarri izate-ko, «arrazionalitate ekonomikoaren lehian» legoke, ordea. Arrazionalitate ekonomikoak kate handi eta globalizatuak ditu oinarri.

Utopiatik jaitsita, Euskal Hiriaren eraikuntzan, egun hain modan dagoen posmodernidadea baztertu eta hiri moderno bilatzen du Atxagak, hiri proiektualaren aldekoa da, «erabat».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da**

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 22a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **22** hotzena **16**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea.** Jon Mujika. **Publizitate.** 661 678818. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa.** 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Villabona-Aitz.** 687 410022. villabona-aitz@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta.** 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarra.** 687 410032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leitza.** 687 410118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK**

**udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiñarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Kaztegieta, Inura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**  
 (balantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Altzo.** Zikiro jatea Altzoko jaietan, hilaren 30ean. 20 eurotan daude salgai, eta 200 lagunentzako lekua dago. Txartelak Arandia jatekian lehenbailehen erostea eskatu dute.

**Ibarra.** *Interruptour* antzezlanaz Gaztetxean 19:30ean, *Interruptus* antzerki taldearen eskutik.

**Tolosa.** Hilaren 27, 28, 29, 30 eta 31ean Picos de Europa irteera antolatu du Oargik. Torre de los Horcados Rojos (2.056) Pico Urriello (2.519), Peña Castil (2.442) eta Torre de la Pardina (2.596) igoko dute. Izena emateko 637 830380 zenbakira deitu behar da.

**Villabona.** Garagardo Festa, Txermin auzoan. 21 garagardo mota. 18:00etatik 01:00etara irekita.

**Tolosa.** Tolargi eta Tolosa Gasak 2008 egutegirako argazki lehiaketa antolatu dute. Gaia natura eta Tolosa da. Lanak paperean edo CDan aurkez daitezke.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Irurtzun.** Mutiloa, A. San Martín, 5. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

**Bihar**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi Ebea. 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



**Sahara Eguna umore, jolas eta kolorez beterik atzokoan**

**ADUNA** ▶ Atzo, azken urteotan bezala Sahara Eguna antolatu zuten Adunan. Goizean Gipuzkoa guztitik haur sahararrak iritsi ziren autobusez. Lehenik herria ezagutu zuten bira bat emanez, batukadaren doinuak berotzen ari ziren bitartean. Bazkaria elkarrekin burutu ostean, arratsalde hasieran jolas eta dantza garaia izan zen. Herriko frontoian, haurrak eta helduagoren bat ere bai, txiki- txiki modura ibili ziren. Aulki jokuan batukadarekin edo oinetan puxikak zituztela elkarri lehertu nahian, irrifarre eta algara ugari ikusi ziren Adunan atzokoan. Jokuen ondoren eta itzulerako autobusa hartu aurretik, txokolatada izan zuten. **ASIER IMAZ**

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

Goza ezazu **aparteKO** udaz

**Dafanis S.A.**  
 INFORMATIKA Y COMUNICACIONES

San Francisco, 19  
 Tolosa  
 ☎ 943 698 126

**euskaltel**